



**ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
[arantza.udala@terra.es](mailto:arantza.udala@terra.es)

## 2012KO MARTXOAREN 2KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Ohiko bilera.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2012.03.02.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Jaime Iturria Mitxelena jn.

### Zinegotziak:

Imanol Artola Guridi jn.  
Ander Almandotz Indakoetxea jn.  
Koldobike Gorostiza Uriguen and.

### **Bertaratu ez direnak:**

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn., kanpoan dagoelakoz.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Alberto Echeveste Aizpiolea jauna: Lorbido Bordako obrak.
- 3.-Arantzako dantza taldea:diru laguntza eskaera.
- 4.-Erretorenea etxearen jabetzari buruz.
- 5.-Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agurrak edo omenaldi zibilak egiteko ordenantza: hasierako onespina.
- 6.- Cederna-Garalur: PDR, PAL eta Agenda 21.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2012ko otsailaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, 6. puntua aldatuz.

Puntu horretan diru laguntzik ez ematea erabaki zen baino gehitu behar da bertzelako laguntza egiteko prest dagoela Udal hau.

### **2.-ALBERTO ECHEVESTE AIZPIOLEA JAUNA: LORBIDO BORDAKO OBRAK.**

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen arabera.

Aztertu ondoren gai hau, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Alberto Etxebeste Aizpioleari jaunari jakinaraztea Lorbidoko Bordan emandako baimenean gailentzen diren obrak hirigintzako arau-haustea larria dela (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002ko abenduaren 20ko Foru Legearen 211. artikulua arabera) eta 30.000,00 euroko isuna ezartzea (15.000,00 euro akordioa hartu eta hilabeteko epean eta bertze 15.000,00 euro 2012.urtean barne ordaintzeko baldintza pean).

2) Alberto Etxebeste Aizpiolea jaunari jakinaraztea Lorbidoko Bordarako emandako baimenean gailentzen diren obrak ez botaraztea, baino adieraztea horiek kanpoko eraikin eta erabileretarako ezarritako araubidearen menpe geldituko direla.

### **3.-ARANTZAKO DANTZA TALDEA:DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Leire Mitxelena Gamio andreak aurkeztutako idatzia, Arantzako dantza taldearen izenean, martxoaren 17an Lizarra eta Irurtzun herrietako dantzari eginen duten bisitan afaria emateko diru laguntza eskatuz eta lo egiteko eskolako gimnasioa erabiltzeko baimena ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako dantza taldeari 500,00 euroko diru laguntza ematea.
- 2) Arantzako dantza taldeari baimena ematea eskolako gimnasioa erabiltzeko martxoaren 17ko gauean.

Alkatea ateri da bilera aretotik eskolara etorri den kamioia hustutzeko. Imanol Artola jaunak hartu du alkatearen lekukoa.

### **4.- ERRETORENEA ETXEAREN JABETZARI BURUZ.**

Informatu da aztertu den arabera, Errementanea etxea katastroan elizaren izenean dagoela baino ez horrela Jabetza Erregistroan.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Udaleko Abokatuei kontsulta egitea etxe honen jabetzaren inguruan.

### **5.-EZKONTZA ZIBILAK ETA HILDAKOEN ALDEKO AGURRAK EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO ORDENANTZA: HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agur eta omenaldi zibilak arautzeko ordenantzaren edukia.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Ezkontza zibilak eta hildakoen aldeko agur edo omenaldi zibilak arautzeko ordenantza hasiera batean onestea.

2) Ordenantza hori hogeita hamar egunez jendaurrean paratzea, aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki-taulan iragarrita, herritarrek eta legezko interesa dutenek espedientea aztertu eta erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak egin ahal ditzaten.

### **6.- CEDERNA-GARALUR: PDR, PAL ETA AGENDA 21.**

Imanol Artola jaunak eman du Cederna-Garalur elkartearen bidez diru laguntza eskaera egiteko deialdi desberdinen berri.

Kontutan hartuza oraindik ez direla zehaztu deialdi horien ezaugarriak eta baldintzak, hitz eman du gaia aztertu eta informazio jaso ahala ematea denei.

Denek jakinaren gainean geratu dira.



## **ARANTZAKO UDALA**

[www.arantza.eu](http://www.arantza.eu)

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@terra.es

### **8.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2012ko 10tik 12 arte).

### **9.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

-Ander Almandoz jauna kexatu da jendea frontoiko paretak eta lurra ez margotzen dutelako. Aipatu du horrela segituz frontoia itxiko duela.

**Gai zerrendatik kanpo eta, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ondorengo gaia eztabaidatu da:**

### **10.-UDALA ETA BONIFACIO OSCOZ JAUNAREN ARTEKO TRUKAKETA.**

2011ko maiatzaren 4an egindako bileran Arantzako Udalak erabaki zuen herri lur hauen desafektazioaren espedientea onestea: 6. poligonoko 348. eta 1. poligonoko 286. herriko lurzatiak, gero Bonifacio Oscoz Almandoz jaunaren 6. poligonoko 338. eta 329. lur zatiekin trukatzeko. Baita ere, espedientea eta hartarako baldintzen agiria jendaurrean paratzea Herriko Etxeko iragarki oholean hilabetez, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina, hori guztia epe horren barrenean alegazio edo erreklamazioak aurkez daitez. Bestetik ere, ohartarazten da horrelakorik jaso ezean erabakia behin betikoa bilakatuko dela.

Kontuan izanik jendaurrean egondako epean ez dela erreklamaziorik aurkeztu.

Kontuan izanik Nafarroako Gobernuak, 2012ko urtarrilaren 11n egindako bileran, onartu duela aipatutako trukaketa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herriko lurak diren 6. poligonoko 348. lur zatia eta 1. poligonoko 286. lur zatia Bonifacio Oscoz Almandoz jaunaren 6. poligonoko 338. eta 329. lur zatiekin trukatzeko espedientea behin betikoz onartzea.

2) Espedientea Lesakako Notaritzara bidaltzea trukaketa eskrituratzeko.

### **11.-AUZOLANEI BURUZ.**

Inaxio Madariaga jaunak, auzolaneko zinegotziak, aurkeztu du 2011ko auzolaneko fitxak. Bertan azaltzen dira etxe bakoitzan egindako auzolan orduak eta lan motak.

Kontuan hartuz Udal berria 2011ko ekainan sartu zela.

Ikusirik auzolana arautzen dituen arauak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Auzolana egin ez duten etxeetara idatzi bat bidaltzea aukera hauek emanez:

1.-Justifikatzea 2011ko urtarriletik ekaina baino lehen egin duten auzolana.

2.-2012ko maiatzaren 30eko epea jartzea falta duten auzolana egiteko.

3.-2012ko maiatzaren 30eko epea jartzea ordaintzeko auzolanaren ordezkoko prezioa (45,00euro/eguneko).

2) Ondoren, eta deus egin ez duten etxeei, 45,00 euro/eguneko prezioa kobratzea denei.

Jaime Iturria Mitxelena jauna bueltatu da bilera aretora.

## 12.- BADENAK JARTZEKO AKORDIO.

Ezaguna da ibilgailuen abiadura handia herri sarreran (Oskozeneatik eskolaraino) eta Goiko Karrikan ere, eta horrek dakarren arriskua herritarrentzako.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Errepidean bi baden jartzeko aurrekontuak eskatzea: bat markesinaren parean eta bertzea Indurrenea etxeko parean.

Bertzerik gabe, gaueko 21:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,  
Jaime Iturria Mitxelena jn.

Imanol Artola Guridi jn.

